



**Arartekoaren 2019R-2294-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpen bat berrazter dezan.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa aurkeztu du Arartekoaren esku-hartzea eskatzeko, diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa 2013ko martxotik 2013ko abuztura bitartean bidegabe ordaindutako prestazioak itzultzeko eskatu diotelako.

Kexagileak azaldu duenez, Lanbidetik 2017ko azaroaren 30eko ebazpena jaso du. Ebazpenean 10.175,43 € ordaintzeko betebeharra deklaratu da, eta erreklamazioaren arrazoia 2008ko martxoan garaje bat saldu izana dela aipatu da. 2017ko uztailean eman zitzaion hasiera prestazioak itzultzeko prozedurari. Datu interesgarri gisa, kexagilea ez zen prestazioen hartzaile, garajea saldu zuenean.

Lehenago, Lanbidek prestazioak itzultzeko beste prozedura bat hasi zuen (2016/REI/025400), baina hori iraungi egin zen, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 58.1 artikulua aplikatuta; horren arabera: *“Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedurari hasiera ematen zaionetik. Epe hori esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe mugaeguneratzen bada, prozedura iraungi egingo da, eta hori adierazten duen ebazpenak jardunak artxibatzea aginduko du”*.

Kexagileak, 2018ko urtarrilaren 2an, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, eta horretan alegatu zuen erreklamazioa –igarotako denboragatik– preskribatu egin zela. Gainera, jakinarazi zuen garajearen salmentan ateratako dirua (% 50) etxebizitzaren irisgarritasuna bermatzeko behar zen igogailuaren instalazioan inbertitu zuela, zegokion zatia ordaintzeko. Dokumentazioa garajearen salmenta-eskriturekin batera aurkeztu zuen, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea berriz izateko prozeduran.

2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartu ondoren, egitate horiei buruzko informazioa eskatu zion Lanbideri eta, ezer erabaki aurretik, zenbait gogoeta helarazi zizkion aplikatu beharreko araudiari buruz: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzeari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 58. artikulua; Etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 36. artikulua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen





azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 47. artikulua, irailaren 29ko 3/2006 Legeak aldatutako idazketan.

Zehazki, Arartekoak kontu hauei buruzko informazioa eskatu zuen:

- a) Betebeharren preskripzioa zuzentzen duen araubide juridikoa kontuan hartu den.
  - b) Zergatik erabaki den kexagileari prestazioak itzularaztea. Izan ere, 2008an garajea saldu zuela jakinarazi zuen herritar horrek.
  - c) Kexagileari behar bezala erantzuteko burutu dituzun edo burutzea aurreikusi duzun jardueren gaineko azalpena.
3. Lanbidek, zuzendari nagusiaren txostenean, erantzun zion erakunde honi 2013/REV/012552 espedientean 27.000 euroko diru-sarrera hartu zela kontuan garajea saltzeagatik (2008-08-13ko diru-sarrera, 2013-02-28an ondoriorik gabe). Horrez gain, hauxe adierazi du: *"Kalkulatu dugunez, errekeritu beharreko zenbatekoa 8.094,35€-koa izango litzateke eta ez 10.175,43€-koa (aipatutako aldian ezin izan zuen zenbateko hori jaso). Edonola ere, duela bost urte baino gehiago izan zen"*.

Gainera, esan du 2017ko uztailaren 21ean prestazioak itzultzeko lehenengo prozedura iraungi izanaren berri eman zitzaiola kexagileari. Jakinarazi du ondoren beste prozedura bat hasi zela, prestazioak erreklamatzeko.

4. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2017ko azaroaren 30eko ebazpenaren aurka jarritako errekurtsioa zati batean onetsiko duela erabaki du Lanbidek.

Honako argudio hauek eman ditu:

Prestazioak itzularazteko prozedurari dagokionez:

2017ko azaroaren 30ean, prestazioak itzularazteko prozeduran (horren zenbakia: 2017/REI/033569), errekurtsogileak 10.175.43 euro itzuli behar duela deklaratu da, 2011/RGI/005131 espedienteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa bidegabe jaso zuelako. *"La determinación de los motivos y origen de esa deuda tiene lugar por medio de acto de no renovación de la prestación de la Renta de Garantía de Ingresos, con fecha 23 de septiembre de 2013, dentro del procedimiento de revisión con número 2013/REN/059768. En esta resolución se constata la venta por parte de la recurrente de su participación en un inmueble por 27.000,00 euros. Este hecho supone la aplicación de un ingreso atípico, conforme al artículo 20 del Decreto 147/2010 de la Renta de Garantía de Ingresos"*.





Zorra preskribatu izanari buruzko alegazioari dagokionez:

*“El artículo 58.2 del Decreto 147/2010, establece que el plazo de prescripción empezará a computarse desde que la administración competente hubiera tenido conocimiento del hecho causante de la obligación de reintegro. El conocimiento del hecho causante se establece en la resolución de no renovación con fecha 23 de septiembre de 2013.*

*El artículo 44 del Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, establece un plazo de prescripción de 4 años. Establece asimismo en el artículo 44.3.a que los plazos de prescripción de los derechos de naturaleza pública se interrumpirán por cualquier acción administrativa, realizada con conocimiento formal del obligado, aunque la correspondiente notificación fuere defectuosa, conducente al reconocimiento, liquidación o cobro, o relacionada con estos.*

*El inicio del presente procedimiento de reintegro tuvo lugar el 13 de julio de 2017, siendo notificado a la recurrente el 21 de julio de 2017, según consta en el expediente, por lo que habría interrumpido el plazo de prescripción antes de su vencimiento. En base a ello, no podemos estimar esta primera alegación de prescripción”.*

Hileko kuotaren eskaerari dagokionez:

*“En segundo lugar la recurrente solicita la cuota mensual de 30 euros, cuota que se le está aplicando actualmente, y que se le aplicó en la resolución de reintegro actualmente recurrida, por lo que entendemos que esta solicitud no tiene objeto, al habersele concedido, antes del momento del recurso, lo solicitado”.*

*Azkenik, Lanbidek adierazi du: “No obstante lo anteriormente dispuesto, y de conformidad con el artículo 109.2 de la ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, procedemos a rectificar de oficio los siguientes errores materiales o de hecho que se han detectado al revisar este expediente para contestar el presente recurso.*

*En primer lugar, indicar que la escritura de compraventa del garaje, es de fecha 25 de abril de 2008. Por lo tanto, conforme al artículo 20.1 del Decreto 147/2010, el ingreso atípico de esta venta ha de aplicarse en los 60 meses*





*subsiguientes a aquel en que tuvo lugar. Es decir, el importe de 450 euros mensuales se aplica desde mayo de 2008 a abril de 2013.*

*En segundo lugar, se ha detectado que el periodo del que proceden las cantidades a reintegrar se extiende del 1 de enero de 2012 al 31 de agosto de 2013.*

*Y en tercer lugar, ha existido un error al calcular la cuantía a reintegrar. Adjuntamos una tabla<sup>1</sup> con los cálculos correctos como anexo al presente recurso, en el que se tienen en cuenta las dos revisiones que se produjeron durante el periodo, con anterioridad a la resolución de extinción.*

*En virtud de lo anteriormente expuesto, hemos de estimar parcialmente este recurso, modificando la cantidad a reintegrar del expediente actualmente recurrido, determinando su importe en 6.992,70 euros procedentes de la percepción indebida de la prestación de la Renta de Garantía de Ingresos. (Consta que la recurrente ya ha abonado 60,00 euros de esa deuda)".*

5. Aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpena aztertuta, interesgarria dirudi diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea berriz onartzeko 2013an bideratutako prozedurari buruzko informazioa gogoraraztea. Prozedura horretan, Lanbidek 2008ko uztailean burututako garajearen salmentari buruzko informazioa eskatu zion kexagileari. Kexagileak alegatu zuen ez zekiela salmenta horrek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen ondorioetarako garrantzia zuenik. Salmenta-eskrituren kopia erantsi zuen, eta jakinarazi zuen ateratako diruaren zati bat (...) kaleko igogailua jartzeko asmoa zuela; hortaz, argudiatu zuenez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.2 artikulua aplikatu behar zen, ohiko etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko obra zelako. Hala ere, 2013ko irailaren 23an, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ez berritzea erabaki zuen, honako arrazoi hau oinarri hartuta: *"BUaren titularrak eta/edo BUko kideak dituen errendimenduak bizikidetz-unitateko kideen kopuruaren eta bizikidetz-unitate motaren arabera dagokion hileko zenbatekoa baino handiagoak izatea"*. Kexagileak ez zuen ebazpen horren aurka errekurtsorik aurkeztu, berraztertze-errekurtsoaren ebazpenean adierazi den bezala.

---

<sup>1</sup> Aukerako berraztertze errekurtsoari buruzko 2018ko irailaren 27ko ebazpenari erantsitako taulak 2012ko utarriletik 2013ko apirilera bitarteko aldia jasotzen du.



## Gogoetak

1. Lanbidek erakunde honen informazio-eskaerari bidalitako erantzunean ez zien erantzun bertan jasotako galderari, hortaz, Arartekoaren azterketak, batez ere, aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren edukia izango du hizpide.

Ebazpen horren arabera, zorra diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan garajearen salmentan lortutako diru-kopurua diru-sarreratzat hartu zelako sortu da. Garajea saltzeagatik (2008ko uztailean) aplikatu den diru-sarreraren portzentajea 27.000 euro da. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikulua aplikatuta, ondorengo 60 hilabeteetan 450 euroko zenbatekoa konputatu behar da.

20.1. artikulua – Sariak eta ezohiko diru-sarrerak:

*“Bizikidetzaren unitateko kideren bati zuzenean egokitzen zaizkion sarietatik eratorritako diru-sarrerak, horiek erabili ahal izan diren egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan, sariaren guztizko zenbatekoa zati hirurogeiren baliokide diren hileroko diru-sarrera gisa konputatuko dira”.*

Azpimarratu behar da prestazioak itzularazteko prozedura hasteko ebazpenean, baita prestazio horiek itzultzeko betebeharrak deklaratzeko ebazpenean ere, 10.175,43 euroko zenbatekoa aipatu zela; aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenean, berriz, zenbateko hori 6.692,7 eurora jaitsi da, ebazpenak errekurtsoaren zati bat onetsi duelako.

Gainera, erakunde honek bidali zuen laguntza-eskaerari emandako erantzunean aipatutako zenbatekoa –sortutako zorrarena– ez zetorren bat aurrekoekin, bertan 8.094,35 euro zela adierazi zelako. Erantzunean, Lanbidek gaineratu zuen aipatu aldiaren kexagileak ezin zuela 10.175,43 euro jaso.

Gauza bera gertatzen da erreklamazioan aipatutako aldietan. Prestazioak itzularazteko prozedura hasteko ebazpenean eta zorra izatea deklaratzeko ebazpenean adierazi da aztertutako zorra 2013ko martxotik 2013ko abuztura bitarteko aldiari dagokiola; **aldi hori ez dator bat, ebazpenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoan kontuan hartutakoarekin**, hau da, 2012ko urtarriletik 2013ko apirilera bitarteko aldiarekin.

2. Lanbideren arabera, prestazioak erreklamatzeko egintza ez dago preskribatuta, eskubidea ez berritzea erabaki zuen ebazpena **2013ko uztaila baino geroago** eman zelako; egun horretan antzeman zuen Lanbidek prestazioak itzularazteko betebeharraren arrazoia, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 58.2





artikuluaren ezarritakoarekin bat, hortaz, prestazioak erreklamatzeko prozedura 2017ko uztailean hasi zela kontuan hartuta, 2013ko irailean ez zegoen preskribatuta.

Arartekoa ez dago ados interpretazio horrekin, uste baitu Lanbideek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ez berritzea adierazteko ebazpena eman baino lehen ezagutzen zuela **prestazioak itzultzeko betebeharra eragin zuen egintza** (garajearen salmenta). Kexagileak, Lanbideren errekerimenduari erantzunez, garajearen salmentari dagokion dokumentazioa aurkeztu zuen, eskubidea berritzeari buruzko espedienteak ebatzi baino lehen.

3. Gainera, erakunde honek ez du uste prestazioen erreklamazioak 2012ko urtarriletik 2013ko apirilera bitartean ordaindutako zenbatekoak erreklamatzeko ahalmena dakarrenik, esan bezala, Lanbideek 2013ko iraila baino lehen jaso baitzuen garajea saldu izanaren berri.

Data horretatik 2017. urtera arte, erakunde autonomoak ez zuen legez baliozkoa den jarduketarik egin zorra erreklamatzeko, eta hori, Arartekoaren iritziz, administrazio ona izateko eskubidetik eratorritako betebeharren kontrakoa da. Eskubide hori Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren bidez garatu da, erkidegoa integratzeko prozesuan, eta Europar Batasunaren esparruan oinarritzeko dela adierazi da (Europar Batasunaren Oinarritzeko Eskubideen Kartako 41. artikulua; Karta Europar Batasunaren Tratatuaren aldatzen duen Lisboako Ituna sinatu zenetik Europar Batasunaren zuzenbidearen parte da). Artikulu horren arabera, administrazio ona izateko eskubidearen barnean honako hau sartzen da: pertsona orok bere gaia inpartzialtasunez, bidezko moduan eta arrazoizko epean tratatzeko eskubidea.

Zuzenbide hori, Europar Batasuneko bada ere, integratzen ari da Europar Batasuneko kide diren herrialdeen ordenamenduetan eta aintzat hartzen da ebazpen judizialeetan; horrela gertatu zen, adibidez, Auzitegi Gorenaren 2015eko azaroaren 20ko epaian (lehenago 1203/2014 Epaia): *"...y ciertamente tal exigencia puede deducirse incluso, no sólo de nuestro propio ordenamiento interno, sino también del derecho a la buena administración reconocido por la normativa europea (artículo 41 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea: con proyección general, no obstante lo establecido también por el artículo 51 de dicha Carta, porque resulta difícil establecer y explicar un distinto nivel de enjuiciamiento, según se aplique o no el Derecho de la Unión Europea por los operadores en el ámbito interno)"*.





4. Gainera, lehen esan denez, prestazioak erreklamatzeko prozeduran aipatutako arrazoia eta aldia oso desberdina zen berraztertze-errekurtsoaren ebazpenaren eranskinean aipatutakoak baino. Erakunde honek bidalitako laguntza-eskaerari erantzunez helarazitako txostenak ere ez du jarraitutako prozedura azaltzen.

Azpimarratu nahi da Lanbidek prestazioak erreklamatzeko prozedura bideratzeko oinarri hartu zuen arrazoiketak garajearen salmenta –2008ko uztailean egindakoa– aipatu zuela; 2013ko irailaren 23ko ebazpenak, aldiz, eskatzaileari diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ez berritzekoak, honako arrazoi hau izan zuen oinarri: *“BUaren titularrak eta/edo BUko kideak dituen errendimenduak bizikidetzta-unitateko kideen kopuruaren eta bizikidetzta-unitate motaren arabera dagokion hileko zenbatekoa baino handiagoak izatea”*. Ebazpenean jasotako arrazoiketa ez da nahikoa; izan ere, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3 c) artikuluan ezarritako eskakizuna errepikatzen du besterik gabe; beraz, ebazpenaren testutik ezin dira ondorioztatu Lanbideren arrazoiak kexagileak etekin ekonomikoak dituela esateko.

Erakunde honek, eskubideak mugatzen dituzten ebazpenetan agertzen ziren arrazoiketak ez zirela nahikoak ikusita, [Arartekoaren 1/2014 Gomendio Orokorra](#), urtarrilaren 20koa, egin zuen. *Lanbidek arrazoitu egin behar ditu eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak*. Bertan, ebazpenetan agertzen den arrazoiketaren garrantzia aztertu zen, oinarriko bermea eta administrazio ona izateko eskubidea delakoaren zati osagarria delako; horrek esan nahi du oso garrantzitsua dela eskubideak mugatzeko ebazpenetan **egitateak behar bezala azaltzea, erabilitako legezko oinarria adieraztea eta erraz uler daitekeen nahikoa informazio ematea**, prestazio horiek gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak nagusiki jasotzen dituztela kontuan hartuta.

5. Hitz batez, Lanbidek, eskubidea ez berritzeko 2013ko irailaren 23ko ebazpena eman ondoren, prestazioak erreklamatzeko prozedura hasi ahal izan zuen, garajearen salmentaren berri bazuelako, **baina, denbora luze igaro arte, hain zuzen, 2017ko uztaile arte, ez zuen baliozkoa den erreklamazio-prozedurarik hasi**.

Prestazioak erreklamatzeko prozedura horretan, Lanbidek garajearen salmenta aipatzen du bakarrik arrazoi moduan, ebazpenak 2013ko martxotik abuztura bitarteko aldiari dagokiola esanez. Errekurtsoari buruzko ebazpenaren arabera, berriz, preskripzio-epea zehazteko kontuan hartutako egitatea diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ez berritzeko ebazpena izan da, eta 2012ko urtarriletik 2013ko apirilera bitarteko aldia hartu da aintzat, sortutako zorra kalkulatzeko. Hortik ondorioztatzen da funtsezko aldeak daudela kontuan hartutako aldien artean. Dirudienez, erreklamatzeko diren zenbatekoen arteko





aldeak (10.175,43 euro, 8.094,35 euro eta 6.692,7 euro) gehituz gero, defentsa-gabezia sortzeko moduko akatsak egon direla ondoriozta daiteke.

Horrez gain, baliteke Lanbidek 2013ko uztaila baino lehen ezagutu zuela prestazioa itzultzeko beharra eragin zuen arrazoia; hortaz, dirudienez, erreklamazioa preskribatu egin da, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 58.2 artikulua aplikatuta. Erakunde honek ez daki noiz eskatu zuen Lanbidek garajearen salmentari buruzko dokumentazioa eta kexagileak noiz aurkeztu zuen aipatu dokumentazioa. Egia da Lanbidek 2013ko maiatzean eten egin zuela diru-sarrerak bermatzeko errenta ordaintzea.

Era berean, kontuan hartzekoa da garajea saldu zenean (2008ko uztaila), kexagilea ez zela diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailea; datu hori interesgarria da, aplikatu beharreko araudiak ez baitu **argi arautzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera egin aurretiko urteetan saldutako ondaretik lortutako diru-sarrerak aintzat hartzea.**

Azkenik, Lanbidek ez du aipatu kexagilearen alegazioa, garajearen salmentan lortutako diru-sarrerak etxebizitza-blokean igogailua instalatuz etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzera bideratu izanari buruzkoa; kasu horretan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.2 artikulua aplikatu behar zen, ohiko etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko obra zelako.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### Gomendioa

Ondoriorik gabe utz dezan Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena, aurkeztutako errekurtsuaren zati bat onartzen duena, eta, azaldutako gogoetak kontuan hartuta, berriz azter dezan prestazioak erreklamatzeko prozedura.

